

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

GAIA: 2/2013

"BERRITZAILE PUBLIKOAREN KONPROMISOA" IZENPETZEARI BURUZ EGINDAKO GALDERAREN GAINEAN HARTUTAKO ERABAKIA

1.- Bi posta elektronikoren bidez –lehena, 2013ko irailaren 5koa, eta bigarrena, gogoraraztekoa, 2013ko irailaren 18koa–, Eusko Jaurlaritzako zuzendari den interesdunak galdetu zuen ea izenpetu dezakeen "BERRITZAILE PUBLIKOAREN KONPROMISOA".

2.- 2013ko urriaren 16ko bileran, Etika Publikorako Batzordeak (aurrerantzean EPB) hauxe

ERABAKI DU:

I. AURREKARIAK

1- Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Etika eta Jokabide Kodea (aurrerantzean EJK) onartu zuen 2013ko maiatzaren 28ko saioan, helburu garbi batekin: politikaren zentzu etikoa berreskuratzea, eta herritarrek beren erakundeengan duten konfiantza lehengoratzea.

Horretarako, aipatutako kodeak Eusko Jaurlaritzako goi zuzendaritza eragilea osatzen duten kargu publikoei eskatu beharreko jokabide, jarrera eta portaerak identifikatzen ditu, haien ekintzak, hala publikoak nola pribatuak, bat etor daitezen aurrez kode horretan finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, Gobernuaren eraginkortasuna sendotuz eta herritarren erakundeenganako konfiantza gutxitu ez dadin ahalegina eginez.

2.- EJK-k oinarrizko bost balio ditu ardatz: osotasuna, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza; bai eta oinarrizko sei printzipio ere: inpartzialtasuna eta objektibotasuna, kudeaketari loturiko erantzukizuna, gardentasuna eta gobernu irekia, zintzotasuna eta ezaxola subjektiboa, errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu. Hain zuzen, EPB honek horiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargudun publikoek helarazitako gai eta zalantza etikoei erantzuteko.

Azken alderdi horri dagokionez, Kodearen 16.3. atalak hauxe zehazten du lehen puntuan: "Etika Publikorako Batzordea izango da oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du".

II. ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTZEKO AURKEZTUTAKO GAIA

1.- Eusko Jaurlaritzako zuzendari den interesdunak BERRITZAILE PUBLIKOAREN KONPROMISOA izenpetzeari buruzko kontsulta egin du, (<https://services.codeeta.com/widget/v3/45770?>), eduki honekin.

BERRITZAILE PUBLIKOAREN KONPROMISOA

"Berritzaile Publikoen Elkarteak" erronka hau egin die Berritzaile Publikoei: Berritzaile Publiko diren aldetik, idatziz, beren jokabidearen eta lanaren bidez, beren lantalde, administrazio eta herritarren bidez konpromisoa har dezatela.

Berritzaile Publiko sentitzen bazara, irakurri konpromiso hauek eta, zurekin bat badatoz, egin zeure.

Adierazpen honekin aukera eman nahi dizugu alde publikoari buruz duzun ikuspegia eta jarrera beste askorekin partekatzeke; zuk bezala administrazio hobea batean sinetsi eta hori lortzeko egunez egun lan egiten duten guztiekin, hain zuzen.

Administrazio Publikoetan berritzaile naizen aldetik,

Konpromisoa hartzen dut:

Administrazioa hobea izan daitekeela sinesteko eta hobekuntzak eta aldaketak eskatzerakoan ez inoiz etsitzeko

Jakintza, aldaketaren kultura eta berrikuntza irekia sustatzeko eta horien transferentzia bultzatzeko

Eraginkortasuna eta printzipio etikoak sustatzeko

Etengabe ikasteko jarrera izateko, jarrera hori jomuga iraunkortzat harturik, aldaketarako prest egoteko eta aukera berrien aurrean zabalik egoteko, ate itxiak dauden lekuan leihoak zabalduz

Besteekin elkarlanean jarduteko, guztiekin hartu-emanak sortzeko, haien ahalmenak aprobetxatuz, eta konpromiso hauekin bat egiten dutenak bilatzeko eta haiei laguntzeko

Lanean,

Konpromisoa hartzen dut:

Ekimen berrietan parte hartzeko, helburuak lortzeko eta porrota onartzeko

Egoera bakoitza berria balitz bezala aztertzeko, "beti horrela egin izan da" lelotik ihes eginez

Sakabanatutako kapital intelektuala proiektu berrien ingurura biltzeko

Politiken edo hierarkien baldintzarik ez onartzeko eta sinesten dudan horren alde lan egiteko

Nire burua prestatzeko eta bikaintasuna bilatzeko

Lantaldearekin

Konpromisoa hartzen dut:

Sormena bultzatzeko eta proposamen berrietara zabalik egoteko

Parte-hartezko giroa eta lantaldearen engaiamendua bultzatzeko

Besteak entzuteko, besteekin partekatzeke eta ardurak eta zereginak besteen esku uzteko, konfiantza sortzeko eta konfiantza izateko

Ondo egindako lanarekiko zaletasuna sustatzeko

Besteak motibatuzeko, prestatzeko eta informatzeko

Administrazioarekin

Konpromisoa hartzen dut:

Alderdi publikoaren balioak praktikan jartzeko: berdintasuna, zerbitzua, gardentasuna eta laguntza, bai barne aldera bai kanpo aldera

Modu sinplean, azkarrean eta nonahi egiteko

Legezketasuna, gardentasuna, gastuaren inguruko eraginkortasuna eta elkartasuna irizpidetzat harturik lan egiteko

Uneoro prestakuntza egokia izateko, eta lanean bikaintasuna eskatzeko eta horren eredu izateko

Nire administrazioaren izen ona eta gizatasuna sustatzeko, herritarrek harekiko duten iritzia hobetzeko eta haren helburuen alde lan egiteko

Herritarrekiko

Konpromisoa hartzen dut:

Herritarrak nire jardun profesionalaren ardatz hartzeko

Herritarrei entzuteko, parte hartzeko eta komunikaziorako bideak sustatuz

Konponbiderik onenak bilatzeko eta bultzatzeko, herritarrei zerbitzu publikoak eskuratzea erraztuz

Zerbitzu publikoen diseinuan eta prestazioan beste askorekin batera partaide, egile eta erantzule direla sentiarazteko

Pertsona bakoitza bakartzat hartzeko eta tratatzeko, etika publikoz, gardentasunez eta azkar

Berritzaile Publikoa naizen aldetik, adierazten dut irakurri ditudala agiri honetan jasotako Berritzaile Publikoaren 25 konpromisoak

Eta haien edukiarekin bat etorriz, onartu egiten ditudala nire izenean, eta horretarako jasotzen ditudala nire datuak jarraian.

2.- Nabarmena denez, konpromiso sorta hori guztiz bat dator EJK-k aldarrikatzen dituen balio, printzipio, jokabide eta portaerekin.

3.- Bereziki bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, eta berrikuntza eta gardentasuna eta gobernatze ona printzipioekin. Hain zuzen, printzipio horietan oinarritzen dira balio horiei berei loturiko jokabideak eta portaerak.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzako Goi Zuzendaritza Eragilearen kide guztiek beren jardunean balio gorentzat hartu beharko luketela inplikatzeko eta etengabe ahalegintzea beti hobetzeko, eta, horren ondorioz, herritarren eskakizunak guztiz betetzeko erabaki publikoetan eta ematen diren zerbitzu publikoetan, eraginkortasunez jokatzeko eta bat etorraraziz erakundeetan lan egiten duten pertsonak helburuetan, hala nola teknologiei eta prozesuei dagokienez.

Hori guztia talde-lan etengabe. Eta talde-lan horrek eskatzen du Goi Zuzendaritza Eragileko egiturako maila politikoen, tarteko zuzendaritzako mailen eta erakunde lan egiten duten gainerako pertsonen (langile publikoen) artean proiektuak eta informazioa partekatzea, konfiantzako espiritua eta talde-lanerako giroa garatuz, eta eskatzen du, orobat, ideiak eta ekintzak bultzatzea, Gobernuaren Programa gauzatzeko eta, horrela, herritarren beharrianak asebetetzeko.

Horretarako, beharrezkoa da erakunde osoan sormena sustatzea, pertsonen gaitasun profesionalak garatzea, eta prozesu, produktu eta zerbitzuen emaitzak etengabe hobetzea.

Beharrezkoa da, halaber, herritarren eskakizun eta beharrian berriei erantzutea eta ideia, kontzeptu eta prozesu berriei irekita egotea. Eta hori guztia, herritarrei administrazioaren prozeduren, txostenen, azterketen eta erabakiak hartzeko arrazoen berri emanez, baita horien diru kostuei eta ordaintzeko moduei buruzko informazioa ere, modu sinesgarrian eta osoan beti ere.

Azken batean, "BERRITZAILE PUBLIKOAREN KONPROMISOA" agiriak azken zatian dioena berretsiz, pertsona bakoitza bakartzat tratatuz, etika publikoz, gardentasunez eta azkar.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk hartutako

ERABAKIA

Interesdunak "BERRITZAILE PUBLIKOAREN KONPROMISOA" izenpetzen badu, ez du EJKren kontra egiten; aitzitik, indartu egiten du kode horrekiko atxikimendua eta konpromisoa, gehien-gehienean bat baitatuz konpromisoak aldarrikatzen dituen balio, printzipio, jokabide eta portaerak eta Kodearen oinarrian daudenak.

EPBk, halaber, dei egiten die EJKrekin bat egin duten kargu publiko guztiei, nahi izatera behintzat, konpromiso hori izenpetzera.

Etika Publikorako Batzordea

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 16a